# Albisteak / Berriak

Izenburua | Data (uuuu/hh/ee) Noiztik: | Noiz arte:

## Aukeraturiko berria

**Sagardoetxea-Euskaltegiak: Jardunaldi baterako proposamena** 2009/02/05



**Sagardoetxeatik, Euskal Sagardoaren Museotik, museoaren eta sagardoa interpretazio gunearen errealitatea euskaltegien eskura jartzen dugu, 20 ikasturterako eskolaz-kanpoko jarduera aberasgarri gisa.**

Proposatutako jardunaldiak sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzea eta la inguruneko euskara ezagutu eta praktikatzea ditu helburu nagusi, eta zehazki, sagardoa eta sagardogileen munduko euskara ezagutu eta lantzea.

Hala, Sagardoetxeak ekintza honi ekitea proposatzen die euskaltegiei, ondoko etape banatuta:

**Euskaltegian** Euskal Herriko sagardoa eta sagarraren kulturaren inguruko teoria informazioaren azterketa euskaltegiek garatu beharreko jardunaldien bidez, Sagardoetxeako web orriak biltzen duen informazioa edo material didaktikoa (sagardoa hiztegia eta sagarrarekin jolasean liburuxka) oinarri hartuta.

**Mintza-praktika Sagardoetxean.** Sagardoaren elaborazio prozesuaren azterketa prakti egingo da Sagardoetxeako instalazioetan barrena egindako bisita gidatu baten bi (sagastia, museo-gunea eta dastalekua ikusiko dira), eta honek, sagardo munduko hit ezagutzeko eta lantzeko aukera emango digu.

Iradokizunak
HABEren egoitzak
Ohiko galderak
Irakasleari galdetu

**www.sagardoetxea.com-en idatzizko praktika.** Sagardoetxeak bere web atarian ikasleek praktika idatzia jorratzeko aukera ematen duen foro zehatz bat dauka, bertako edukiak ikastetxe desberdinetako irakasleek jartzen dituzten arauen arabera garatuko direlarik.

**Jarraipena.** Prozesu guztiaren jarraipena Sagardoetxeako teknikariek egingo dute, bai museoari dagozkion gaietan eta baita elaborazio prozesuari dagozkionetan ere. Heziketa eta pedagogia jarraipena, Bestalde, euskaltegietako tutore eta irakasleek egingo dute, prozesu zehatzak eta garatu beharreko programak finkatuta.

**Tarifak:** Sagardoetxea-Euskaltegiak proposamenaren prezioa:

| | |
|---|---|
| Euskaltegiko prestaketa | |
| Material didaktikoaren banaketa | |
| Mintza-praktika Sagardoetxean (bisita gidatua, GozoGozo produktuen dastaketa eta sasoiari dagokion jarduera) | |
| Web orriko idatzizko praktika | |
| Jarraipena | |
| **Prezioa** | **3,50 euro pertsonako** |

Beste aukerak:

| | |
|---|---|
| Gazta edo txorixo pintxoa | **1,50 euro pertsonako** |
| Sagardotegiko menua (sagardotegi bakoitzaren arabera) | **26-30 euro pertsonako** |

Informazio gehiagorako, atxikita bidaltzen dizuegun PDFa ikus dezakezue edo gure web orrialdea kontsultatu: http://www.sagardoetxea.com/

Harremanetarako klikatu hemen